

9. KOSTUEN EGITURA

Gure kostuen egiturari dagokienez, bitan banatzen diren arren, kostu aldakorrak izango ez ditugula aurreikusten dugu hasiera batean, lokal baten alokairua ez baitugu behar.

Kostu finkoak aztertuz, enpresak lehen pausoak emateko ofizina simple baina erabilgarri bat alokatuko dugu, 1900 eurokoa kostua izango duena eta 240m karratu. Gure ustez bilatzen ari garen beharretara primeran egokitzen da eta gainera oso ongi konektatua dago.

Langileei dagokienez, lehen esan bezala 8 izango ditugu hasiera batean, informatikoak 2000 euroko soldata hilean izango dute, eta ofizinako langileak 1800 euro. Gure soldata, hau da, aplikazioa aurrera eramateko proiektua garatu dugunona hilabeteko bilakaeraren baitan izango da. Erabaki dugu lehenengo gure langileei garatzea, eta gero guk aplikazioaren egoeraren baitan kobratzea beraz.

Gainera, 8 langile ditugunez 8 ordenagailu beharko ditugu, informatikako arlokoek Apple markako MAC izango dituzte, 1000 bat euro kostatuko dutenak eta funtsezkoak nahiz beharrezkoak izango direnak haiek beren lana era eraginkorrean gauzatzeko, ofizinako kideek ordenagailu oso onak baina maila baxuago batekoak izango dituzte, hauek 500 eurokoak izango dira eta Acer markakoak izango dira. Enpresaren proiektua martxan jarri dugunok proiektore bat jarriko dugu, gastuak minimizatzeko eta tresna oso interesgarria delako.

Horrez gain, Tablet bat izango dugu guretzat ere, Apple markako Ipad bat, honen eraginkortasuna dela eta. Eta, bezeroarekin harremanretan jartzeko dei eta minutu ilimitatuak dituen plan bat kontratatuko ditugu.

Hasiera batean hauek izango dira gure enpresak izango dituen kostuak baina aurreikusten da proiektua martxan jarri ahala kostuan handitzea, gure helburua kostuak ahalik eta gehien minimizatzea izango da.